

ETXEKO GAUZEN IZKETA



Giza-semeak ez-eze, begiz ikusten ditugun gauza guztiak be, nortasun bat dabela esan geinke, kemen edo gogo, arima bat.

Ara-ona ibilliz, ikusiz ta ikutuz, oitu egiten gara, ta arima zati zora-garriaz azturik, gorputza, gaineko azala, gixien halio dauan zer uts ori baiño ez dogu ederrean: intxaurrak oskola dau estalgi, ta gaineko ori aus ezik, guk oskol ori baiño ikusi ez.

Irakurle maite: ez dozu zuk sekula entzun inguruau dozuzan ta begiko jatzuzan etxeko gauzen izketa ixillik? Belarriak adi, entzun egizu, arren, diñotzuena.

Etxeak.—Aspertu barik naukazu zuri deika; zuk, ostera, ez daustazu entzuten. Lan ta biar artean murgil ta nastua, itsaso apartsuan lez zabiltz, ta ezin entzun nik eztiro biotzera ixurten dautzudazan itz bigunak.

Alan be, zure bizileku nozu. Zure aurretikoak jaso ninduen poz-alai, gizaldiak dirala; ta emen naukazu oindiño zutik, iñora aldatu barik. Belaunaldi asko ikusi ditut: baiña zuek, sendi, pamili ta abar aurrera zoiatze: zuen egunak eta giza-legea bete ta gero ezer ez, zuenak egin dau. Zuen ondoren beste batzuk etorriko dira. Oneik be zuena egingo: asi ta amaitu. Ta orrelaxe beste guztiak. Zelaiko albitza? Zuen antz-iduri.

Aurreko arteak ni estaltzen nauau lez, nik zuek estaltzen zaitnet, zuen egote labur ontan. Zapi zuri bigunez estaltzen ditut pozak, zuen atseka-beak, zuen barru-miñak: eta euron barri iñori be ez dantsat emoten, ixilzale nazalako. Ustai gozoz lotu ta inguratzen dot zuen bizitz-zugatza, ta azkenetako, zuen errai zati nazala begitantzen yat. Ez ete naz gero?

«Neure etxe maite» esan oi dozue: ta iñoiz ni itxi-bearrez aurkitzean, biotza morritzu ta odol-jario biurtzen jatzue. Alan be, ene semetxo errukarriak, egunen baten itxiko nozue. Ez, etzarie nire lau ormetan lotuta, itsaita geratuko, ezta subil-osteko berotasunean gorderik be.

Ta oba orrela. Osterantzean, ba, ez zeunkiez entzungo goitiko dei ederrak: maitasuna, aberria, lur barriak irauli bearra. Aul ta makal dira nire arriak, dakizuenez: egunen baten lurra joko dabe, zalapartaka. Eta zuek, or biotz zokoan, ames gozo ta goitiko betetik, abi bero lilluragarria dozue.

Maite nagizue; baiña gogoratu: ni ez nozue ezelan be azken-bizileku. Zeru urdiñez goitik dozue orrelakoa.

(Jarreitzeko)

MAITE-İKAREA

Maite-ikareak
lenbizian
koxk-egin zidan
bijotzian

Ta koxk onekin asirik,
maite-girina badut nik:
ur-iturriyen antzera,
maite-iturriyak berera.

Koxk ura
tirrinta
oarkabez
egin da.

Tirrintak gogo min
giztu du bisiya:
gogoak du sumin
bai leya.

Ta leyak du egin
oi! Su tzar aundija.

Legarrez legar jauziz urrutak
ihai-bearrez ametsa;
ara herean maite-iturriya
andi-bidean jarri da.

Lur-errayetan xirripak fraugo,
frango nasai ta ugariyak;
maite-sabietan kezka gutiago
ez du, ez noski, maitariyak.

Ur guziyeri axol-axolik
aterabide eman bear da:
ateku gaixtoan gerta diteke
barnen urak itota.

Maitari-miñak edaturikan
iroñen baitan eskumen,
unat belduak tanto tipiak
urandi gaitzak izaten.

Nai ba'zenuke berartakoan
biyotz-indarra mugatu,
ala litzake nola itxasoko
urak tentun motz giltzatu.

JOSE ACUERRE